

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

2020ko otsailaren 28ko Erabakia, Zerbitzu Orokorretako administraria lanposturako hautatua-rena onesten duena kontratazioa, 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko

Uztailaren 10eko 374/2018 Erabakiaren bidez Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu eskaintza publikoa onestu zen.

2018ko uztailaren 24ko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

2019ko abenduaren 27ko behin betiko zerrenda argitaratu zen, Zerbitzu Orokorretako Administralari lanpostuetan. Hautatutako izangaia ondoren zehazten den lanpostura atxikita dago:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
GORGOJO TRANCÓN, BENITO	Zerbitzu Orokorretako Administraria	030106
PERIANES MORENO, MARIA JUNCAL		030207

Oinarri arautzaileen 8. apartatuarekin bat etorritik, pertsona hauek aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituzte ezarritako epearen barruan, eta agiri horiek aztertuta, ondorioztatzen da izangaia eskatutako betekizunak betetzen dituela; horrenbestez, egokia da pertsona honek langile lan kontratudun gisa kontratatzea, lanpostuen zerrendan lanposturako ezarritako baldintzekin bat etorritik.

2020ko otsailaren 27an, María Juncal Perianesek idazkia aurkeztu du, kontratazioari uko egiten diola jakinarazteko. Hori dela eta, egintza honetan onetsi behar da Benito Gorgojo Trancón kontratatzea 030106 lanposturako, eta puntuazio ordenaren arabera hurrengo hautagaia kontratatzeko proposamena egin behar da, oinarri orokorren 8. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik; hain zuzen, gairatutako izangaien 2019ko abenduaren 16ko behin betiko zerrendaren arabera, María Blanca Carreño Sanchezzi dagokio.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainare 8ko Diputatuen

Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Erakunde Autonomoko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuen deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da.

EBAZPENA

Lehenegoa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoko Zerbitzu Orokorretako administralari lanposturako kontratatzea ondoren zehazten den lanpostura atxikita dagoen izangaia:

KODEA	LANPOSTUA	KONTRATAZIO ERREGIMENA	IZEN-ABIZENAK
030106	Zerbitzu Orokorretako Administraria	Lan-kontratu Finkoa	Benito Gorgojo Trancón

Bigarrena. Puntuazioaren araberako hurrengo hautagai kontratatzeko proposamen berria egitea.

Hirugarrena. Izendatutako izangaiak hilabeteko epea du lanpostuaz jabetzeko, izendapena komunikatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori hamabost egun luza daiteke, izangaiak hala eskatzen badu, eta horretarako bidezko arrazoirik izanez gero.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epealdiaren barruan lanpostuez jabetzen ez bada, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioa izateko eskubideak, deialdiaren ondoriozkoak, galduko ditu.

Laugarrena. Kontratututako izangaiak, bere lekuan, Langileen Estatutuko 14. artikuluan ezarritako gehieneko probaldia gainditu beharko du, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 23koak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak emandako bertsio berriaren arabera.

Bostgarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean. Hain zuzen, hala egin ahal izango da bat etorritz uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 123. artikuluekin eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen 123. artikuluekin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 28a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO